Bilbao, 14 de julio de 2020

Estimado/a compañero/a:

Dado que desde que surgió la pandemia se eliminaron los mensáfono o teléfonos que se intercambian los salientes y entrantes en los diversos servicios de Asistencia, y desde entonces se realizan los envíos de mensajes o llamadas a los teléfonos particulares de quienes se encuentran de guardia, se ha considerado más adecuado, tal y como ya se está llevando a cabo en los Partidos Judiciales de Durango y Gernika, que **el cambio de la guardia se realice a partir del próximo día 18 de julio, a las 7:00 horas** en vez de a las 9:00 horas.

Este cambio afectará a todo tipo de guardias: Asistencia al Detenido de Juzgados y Comisarías, Menores, Extranjería, Euskara y Víctimas de Violencia, en todos los Partidos Judiciales de Bizkaia.

Destacamos la importancia de mantener actualizado el número de teléfono en la base de datos del Colegio e informar si se realiza un cambio, de mantener el teléfono móvil en perfecto estado de uso, con la batería cargada y asegurándose de que existe cobertura en todo momento y con volumen suficiente, de forma que se puedan recibir los mensajes o llamadas a cualquier hora del día o de la noche sin ningún tipo de incidencia.

A partir de ese día, en las diversas guardias de asistencia al detenido se realizará por el servicio de Radio Mensajes, además del aviso a través de un SMS, una llamada para confirmar que el mismo se ha recibido.

Os recordamos la obligación e importancia de la presentación, a la mayor brevedad a través de la zona privada de la Extranet colegial, de todos

Bilbo, 2020ko uztailak 14

Lankide estimatua:

Dakizunez, pandemia hasi zenetik asistentzia-zerbitzuetan abokatuen artean trukatzen ziren mensafono edo mezulari eta telefonoak alde batera utzi genituen eta harrezkero guardian daudenen telefono partikularretara deiak egin edo mezuak bidaltzen dira; hori dela eta, egokiagotzat jo da -Durangoko eta Gernikako barruti judizialetan dagoeneko egiten ari diren bezala- datorren **uztailaren 18tik aurrera guardiaren aldaketaren ordua aurreratzea: 7:00etan izango da**, 9:00etan izan beharrean.

Aldaketa horrek Bizkaiko barruti judizial guztietan aplikatuko da eta mota guztietako guardien gainean eragina izango du: Epaitegi eta polizia-etxeetako atxilotuei laguntza, Adingabeak, Atzerritarrak, Euskara eta Indarkeriaren biktimak.

Horrenbestez, oso garrantzitsua da Elkargoaren datu-basean telefono-zenbakia eguneratuta izatea (eta aldaketa bat eginez gero, horren berri ematea), telefono mugikorra erabiltzeko moduan edukitzea, bateria kargatuta eta une oro estaldura eta bolumen nahikoa dagoela ziurtatuta, mezuak edo deiak eguneko edo gaueko edozein ordutan jaso ahal izateko inolako gorabeherarik gabe.

Egun horretatik aurrera, atxilotuari laguntzeko guardietan, SMS bat bidaltzeaz gain, dei bat egingo du Radio Mensajes zerbitzuak, hura jaso dela egiaztatzeko.

Halaber, gogorarazten dizuegu ezinbestekoa dela laguntza parte edo idazki guztiak (polizia-etxekoak nahiz epaitegikoak, prozedura artxibatu edo ez) lehenbailehen aurkeztea, Elkargoaren estraneteko eremu pribatuan.

| | |
|---|---|
| los Partes de Asistencia (tanto de la comisaría como del Juzgado, en todo caso, se archive o no el procedimiento).<br><br>Por último, se nos ha comunicado que a partir de mañana día 15 de julio**, las asistencias de las personas detenidas por parte de la Ertzain-etxea de Getxo serán trasladadas al centro policial de Erandio** (Larrauri Mendotxe Bidea, 18), dado que durante los próximos 26 meses las dependencias de Getxo permanecerán en obras de remodelación.<br><br>En la confianza de que esta modificación ayude a mejorar nuestros servicios de asistencia, recibe un cordial saludo. | Azkenik, jakinarazi digute bihartik aurrera -uztailak 15-, **Getxoko Ertzain-etxeko atxilotutakoen laguntza Erandioko polizia-etxera eramango dutela** (Larrauri Mendotxe Bidea, 18), izan ere, datozen 26 hilabeteetan Getxoko bulegoetan birmoldaketa-lanak egin behar dituzte.<br><br>Aldaketa horrek gure laguntza-zerbitzuak hobetzen lagunduko duelakoan, har ezazu agur bero bat. |

***ANA LUZ UÑA***
***Diputada 8ª de la Junta de Gobierno***
***Gobernu Batzordeko 8. diputatua***